

# Prensa oharra

## Nota de prensa



### **Udalak 807.000 euro handituko du kolektibo ahulentzako aurrekontua**

*Gizarte Larrialdietarako Laguntzetara bideratutako zenbatekoa 2,6 milioi eurotik 3,5 milioi eurora igaro da, elikaduraren eta energiaren oinarrizko gastuei aurre egiteko*

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du kolektibo ahulentzako laguntzetara bideratutako aurrekontua handitzea. Zehazki, handitu egingo dira Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) onuradun diren familiei eta pertsoneri esleitutako zenbatekoak, eta Lan Partekatuaren Plana Babesteko Languntzak (APPTC) jasotzen dituztenei esleitutako zenbatekoak.

Horrela, Udalak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen arloan izango duen aurrekontua 2,6 milioitik 3,5 milioi eurora pasako da. Honek esan nahi du 807.000 euro gehiago erabiliko direla elikaduraren eta energia-gastuen oinarrizko beharrak asetzeko. Igoera honen jatorria Isuri erreskate-funtsa da. Eusko Jaurlaritzak aktibatu du funts hau, Ukrainako gerrak Euskadin eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko.

2021ean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen bidez, guztira 1,7 milioi euro bideratu ziren etxebizitzarekin lotutako gastuetarako, eta 1,1 milioi energia-gastuetarako.

Halaber, Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Lan Partekatuaren Plana Babesteko dirulaguntzak (gizarteratzeko udal laguntzak) emateko irizpideak aldatzea: GLL dirulaguntzak emateko finkatutako irizpideak APPTC delakoak emateko erabiliko dira. Aldaketa honen helburua dirulaguntzen irismena zabaltzea da eta, modu honetan, kolektibo eta pertsona zaurgarri guztietara iristea. Udalak bere gain hartzen ditu aldaketa honek eragindako gastu guztiak.

Bi kasuetan, jaso beharreko hileko gehieneko zenbatekoek honako igoera hauek izan dituzte: kide bat duen bizikidetzaren unitate (BU) batentzat, 250 eurotik 360 eurora; bi kideko bizikidetzaren unitate batentzat, 300 eurotik 465 eurora; eta hiru kide edo gehiagoko bizikidetzaren unitate batentzat, 350 eurotik 515 eurora.

Donostiako alkate Eneko Goiaren hitzetan, “energiaren kostuaren eta oinarrizko beharren igoerarekin, beharrezkoa ikusi dugu laguntzak eskuratzeko baldintzak aldatzea, premia duten pertsona eta familia guztiengana iristeko”. “Beti izan dugu argi hiriko kolektibo eta pertsona zaurgarri guztiei lagundu behar diegula, eta ez dugula inor atzean utziko”, gaineratu du.

2021eko ekitaldian, Udalak 972.471 euroko funts propioekin Donostiako familia ekonomikoki ahulenei lagundu zien.

# Prensa oharra

## Nota de prensa



### **Eraisketa Amara kalean**

Tokiko Gobernu Batzardeak onartu du Construcciones Moyua S.L.ri esleitzea Amara Kaleko 11, 13 eta 17 etxebizitza eraikinen eraisketa proiektuari dagozkion obrak xede dituen kontratua. Etxebizitza eraikin hauek “aurri ekonomikoan” deklaraturuta daude.

Exekuzio epea hiru hilabetekoa da, eta aurrekontua, 408.743 eurokoa.

### **Erdiguneko ura banatzeko sarea berritzea**

Tokiko Gobernu Batzardeak onartu du Ubycolan S.L. enpresari esleitzea Erdialdeko guneko ur banaketaren sare nagusia berritzea proiektuaren exekuzioa xede duen obra kontratua. Konkretuki Askatasun hiribidea-Mirakruz kalea zatian egingo da.

Betetze epea 4 hilabetekoa da, eta aurrekontua 665.865 eurokoa.

Donostian, 2022ko urriaren 4an